

GURE ESKU DAGO

Lehen hazia jartzetik 52. kilometroa eskuz lotzera iritsi dira idiazabaldarrak

📁 GIZARTEA / amalur.artola@gaur8.info

Bihar beteko da astebete 150.000 lagunek euren arteko ezberdintasunak ahaztu eta, elkarri eskua emanda, Durango eta Iruñea lotu zituztenetik. Alderdi politiko eta instituzioez harago, herriar soilak izan ziren erabakitze eskubidearen aldeko festa arrakastatsuko protagonista. Baita sustatzaile ere. Giza katea hedabide eta politikarien ahotan ibili den aste honetan, gu ekimenaren lehen hazia jarri zutenei begira jarri gara. Idiazabalen egin dugu hitzordua, dena hasi zen herrian.

Oraindik urduri topatu ditugu Xabier Intxausti, Eider Alustiza eta Tere Barrena. Igandekoa sinetsi ezinda. Irribarre artean hartu gaituzte, emozioz gainezka, baina, aitortu dutenez, atsedeen hartzeko gogoz. «Urte gogorra izan da eta merezi dugu hori ere!», ziurtatu du Xabierrek.

Plaza ondoko elkartean, Gure Esku Dagoko bilerak egiten dituzten mahaiaren bueltan eserita kontatu digute nola bizi izan duten jada “historikoa” abizena bereganatu duen mobilizazioa, baina baita giza kate erraldoiak jendea metatu eta deitura hori bereganatu ahal izateko aurretik egindako lanketa ere.

IDIAZABALETIK ESKOZIARA BEGIRA

2007an hasi zen guztia, Idiazabaleko herri kirol taldeko kideek Euskal Selektzioaren ofizialtasunaren edota Korrikaren aldeko aldarrietan adostasuna biltzen bazuten, beste aldarrikapen baten inguruan ere ados jartzeko modua izango zutela ikusi zuten. «Adin, kuadrilla eta iritzi ezberdinetako pertsonak geunden taldean, baina ‘erabakitze eskubidea dugu’ gisako aldarrikapen sinple bezain oinarritzokoa bat egiten genuen, eta hura lantzea erabaki genuen», kontatu du Eiderrek.

Hala bidaiatu zuten, 2008ko Aste Santuan, Eskoziako Highland Games jaialdira. «Beste esperientzia batzuk ezagutu nahi genituen eta, herri kirolean genbiltzanez, Eskoziara hautatu genuen. Gogoan dut urte hartako

Idiazabalen hasi zen guztia, herri kirol talde batek ezberdintasunen gainetik adostasunak bilatu eta aho batez «nola ez dugu ba edukiko erabakitze eskubidea?» esan zuenean. Aldarria Goierrira zabaldu zen lehenik, Gipuzkoara gero, eta Euskal Herrira azkenik. Giza kate arrakastatsutik astebete igaro den honetan, ekimenaren sorlekuan, Idiazabalen, izan gara. Filmeko protagonistak herritarrek direla aldarrikatu duen herrian.



Elorri txikia, Eider Alustiza, Xabier Intxausti eta Tere Barrena, ekimenean parte hartu duten idiazabaldarrak. J.C. RUIZ | ARGAKZI PRESS

ko otsailean, herriko jaietan, egin genuela aurkezpena. Frontoia lepo zegoen, 600 pertsona inguru izango ginen. Kirol taldeko kideak erabakitze eskubidearen alde Eskoziara gindoazela azaldu genuen eta aurkezpenean sentsibiltate ezberdineko bi pertsonak hartu zuten parte; horrek izan zuen bere eragina», ziurtatu du Xabierrek.

Eskoziatik hartu zuten irakaspenik. «Euskal Herrian herri mugimenduetara ohituta gaudela, baina han ez genuen halakorik ezagutu. Gehiago jotzen da ordezkari politiko, instituzioetatik, administrarritatik... Han, alderdiek erreklamatzeko dutena bozkatzeko dute herritarrek. Gure ikasketa nagusia izan zen unionistek ere erabakitze eskubidearen alde zeudela esaten zutela: ‘Nik Britainia Handian geratu nahi dut eta horren aldeko lan politikoa egingo dut, baina erabakitze eskubidea printzipio demokratiko bat da, eta noski sutsuki defendatuko dudala’. Guk, han horren erraz ikusten zutena hemen ez ikustea nola den posible galdetu genion geure buruari».

Lehen bidaia haren ondotik etorri zen bigarren esperientzia bat ezagutzeko gogoia eta, hala, Katalunia izan zuten helmuga. «Han beste irakaspen batzuk hartu genituen. Herriz herriko galdeketa egin zuten garaia zen eta han kontsulta independentziarekin lotzen zuten, bazuen plus hori. Lan egiteko beste modu bat zen eta hortik ikusi genuen Katalunian herriak mugitu zituela hainbat politiko: herriak du han indarra. Gure artean, ‘hangoek egin baditek eta bestaldekoek ere bai, guk ere zer edo zer egin beharko diagul’ esan genuen».

Ordurako zerbait ari zen egosten Idiazabaleko lapikoan eta eskuarte zutena eskualdera zabaltzea deliberatu zuten. Handik etorri zen, 2010ean, arrakasta itzela izan zuen Eskoziako Euskal Herria jaialdia, Ordiako errugbi zelaian 7.000 lagun elkartu zituen festatzarra. «Lan asko egin behar izan genuen hura antolatu eta zabaltzeko, kamisetak saldu, taloak